






berde-berdea




OPORRALDI EKOLOGIKOAGOAK

**IKASLEAREN
KOADARNOA**




gizarte ekintza

OPORRALDI! EKOLOGIKOAGOAK



HEMEN DITUGU OPORRAK!

Antoine eta Arnaud D'Abadie Afrikan ibili ziren 1832tik 1844ra. Tarte horretan, hainbat gauza egin zituzten: ikerketak, Etiopiako enperadorearen aholkulari lana, bertako hizkuntzak ikasi...
Antoinek, gainera, haur etiopiar bat adoptatu eta Hendaia bere jauregira ekarri zuen. Eta jauregia aipatu dugunez, ez ezazu bisitatu gabe utzi, ikusgarria da eta.



GARAI BATEKO BIDAIAK

ABENTURAZALE BAT!

Charles Darwin bost urte -1831tik 1836era— ibili zen itsasontzian munduan zehar, eta tarte horretan jasotako oharretan oinarritu zuen "Espezien eboluzioaren teoria" izeneko liburua.





Igeldoko jolas parkea,

Kursaal kasinoa,
Maria Cristina hotela...
Belle Epoque deritzan garai honetan eraiki ziren.

- XIX. mende hasieran, izugarrizko abentura zen bidaiatzea. Gutxi batzuk, soilik, bidaiatzen zuten, beste leku eta kultura batzuk ezagutzeko, eta ikaragarrizko abenturak izaten zituzten.
- Urte batzuk geroago, XIX. mende bukaeran eta XX. mende hasieran, goi mailako en esku zegoen, bakarrik, bidaiatzea.

- Espainiako errege-erreginak eta horien ingurukoak –aristokrata, diplomatiko, dirudunak...— hasi ziren Donostiara hurbiltzen itsasoan bainatu eta atseden hartzeko.

- Gauza bertsua gertatu zen Miarritz eta Frantziako Pirinioetako beste herririka batzuetan: errege-erreginak, enperadoreak, artistak... etortzen hasi ziren.



BAZENEKIEN "Munduari bira 80 egunetan" idazteko Julio Vernerren inspirazio iturri XIX. mendeko aristokrata gazteak izan zirela, eta haiek kulturzale eta bidaiari porrokatuak zirela?

GAUR

EGUNEKO BIDAIAK



HAU JENDETZA!


Mediterraneo inguruan hirukoiztu egin da turista kopurua 1970etik 1990era: 54 milioitik 157 milioira pasa da.

Espainiara bidaiatzen duten turisten %80k kostaldera jotzen dute; beste 20ak, aldiz, nahiago du mendia edo barnealdea.



Munduko

6.000 milioi biztanletik, hamarren batek, bakarrik, jotzen du atzerrira oporrak igarotzera.




- 1950-1960 inguruan bihurtzen da turismoa gaur egun ezagutzen dugun modukoa.

- Herrialde asko (Benidorm, adib.) turismogune bilakatu eta izugarri hazi ziren.

- Gaur egun, Gabonetan, Aste Santuan, udan... bidaiatzen da.

- Oporrak ez daude edonoren esku: lehen munduko askorentzat eta hirugarren munduko gehienentzat ezinezkoak dira




BEHARRAK ERAGINDA ERE

BIDAIAITZEN DA

ERNE!

Urtero-urtero, 200 milioi lagun baino gehiagok aberritik atera eta atzerrira jo behar izaten dute, biziko badira.



- Turismoa ez da bidaiatzeko arrazoi bakarra. Badira lan bila eta bizimodua hobetzeko bidaiatzen dutenak ere.

TURISMO JENDETSUAK

ERAGINDAKO KALTEAK

MENDI ETA LANDA INGURUAN



Austriako Alpeetan 1983an izaniko elurrolde ugariak lur mugimenduek eta baso soilteek sorrazitako higidurak eragin zituela jakin zuten. Hori guztia, gainera, 1980ko Neguko Joko Olinpikoetarako eski pistak eraikitzeke egin zuten.

Teruelgo

Gúdar mendikatean dagoen pinu beltzeko pinudirik onenetakoa arrisku bizian da, errepideak, aparkalekuak eta eski pistak egin nahi baitituzte bertan.

(ADENA)



Eper zuriak gero eta gutxiago dira, eta eski turismoak du, neurri handi batean, errua. Uste denez, 60 bikote baizik ez da gelditzen Pirinioetan, eta 4 Nafarroan.






ADI SUAREKIN:

suteen erdia baino gehiago errepide eta bide ondoetan pizten dira

(Ekologistak Martxan).



GOGOAN IZAN mendian uzten dituzun plastikoei 100 urteik gora 4 behar dutela desagertzeko.


- 
- 
- 
- 
- 
- Mendiko turismoa ekosistema garbi eta aberatsetara, lore eta landare ugartasun handikoetara, iristen da: baso, ibai, laku, leize zulo...
 - Hiritik alde egin nahian jotzen dugu mendira, naturaz gozatzeko, baina, azkenean, hirigune bihurtzen dugu.
 - Aparkalekuak, errepideak, hotelak eta urbanizazioak eraikitzeke.
 - Zuhaitzak moztu, basoak suntsitu, lurrak hartu... eta antzekoak egiten dira, eta, horrela, espezie askoren bizilekuak hondatu, ibaiak zikindu, putzuak kutsatu... egiten dira.
 - Ez dugu naturarekiko begirunerik :
 - Animaliak asaldatzen ditugu.
 - Suteak eragiten ditugu.
 - Zaborra nonahi uzten dugu.
 - Balio paisajistiko handiko lekuak jendez eta autoz betetzen ditugu.
 - Eta era horretan, hain eder iritziriko lekuak bere xarma galtzen du.



TURISMO JENDETSUAK KOSTALDEAN


ERAGINDAKO KALTEAK

2001ean, 50 milioi turista etorri zen Espainiara atzerritik. Greenpeacearen arabera, Mediterraneoko itsas-ertzean kostaldeko osagarrien %25tik gora suntsitu ditu giza jarduerak: dunak, padurak...




Andaluziako

golf zelai batek 15.000 metro kubiko ur behar ditu urteko eta hektareako; Almeriako nekazaritzak, aldiz, 6.000.



ZABOR GEHIEGI:

2002ko ekainaren 15etik abuztuaren 30era, 707 metro kubiko hondakin (plastikoak, egurrak, hondakin organikoa, koipeak, landare hondakinak, solidoak...) bildu zituzten Kataluniako hondartzetan.



UUFI: Kanarietako

Las Palmasen zuzenean isurtzen dituzte ur zikinen erdiak itsasora, hau da, aurrez batere garbitu gabe.



- Itsas eta hondartzako turismoa da nagusi. Zer eragiten duen horrek?

- Gero eta errepide, pasealeku eta eraikin gehiago egotea, eta, beraz, kostalde "libre" gutxiago izatea: dunak, padurak...

- Energia eta ur kontsumoa izugarri handitzea: turista batek, eguneko, 400 litro ur xahutzen ditu; herritar batek, aldiz, 147.

- Zabor pila bat sortzea, eta horrela, jakina, oso zaila egiten zaigu hondartzak eta herriak garbitzea.

- Ur zikin kopurua izugarri emendatzea

azpiegituren

eraginez; gero,

gainera, zuzenean isurtzen da itsasora.

STOPI ERNEI KONPONBIDEAK

BEHAR DITUGU



KALTETUTAKOA KONPONDU ETA GUNE BALIOTSUAK BABESTU BEHAR DIRA

DEBEKUA:

Ordasako parke naturalean (Huesca) debekatua dago autoak sartzea ekainetik irailera. Trukean, autobusak jartzen dituzte Torlatik, eta, horrela, bisitari kopurua kontrolatu ahal dute.

Calvián (Mallorka), 30 hoteletik gora eraitsi dituzte 1993az gero.

Orube horiek berdegune eta pasealeku bihurtu dituzte, edota hondartzak berreskuratzeko baliatu dira.

Bazenekien

Port Aventura parke tematikoak Salouko araztegiko ura erabiltzen duela lorategiak ureztatzeko?

Euskal Herrian honako hauek babestu ditugu:

- Iñurritzako dunak (Zarautz).
- Urdaibaiko Biosfera (Gernika).
- Txingudiko padura (Irun).

- Hain gora iristen ez diren errepideak eginez; horrekin batera, aparkalekuak eginez eta jendea oinez ibiltzera animatuz.


- Hobeto planifikatuz noiz, nola eta non eraiki.

- Araztegiak eginez ur zikinak garbitzeko.

- Padurak, dunak, zelaia... babestuz.

- Kanpatzea eta sua piztea, baimendu gabeko lekuetan galeraziz.

- Zaborra edukiontzi eta paperontzietan botaz.



GERO ETA GEHIAGOTAN AUKERATZEN DUGU TURISMO ALTERNATIBOREN BAT



Mundu osoan, urtero, 50 milioi baino turista gehiagok egiten du ekoturismoa.

Europako
Batasuneko
biztanleriaren %25ek
nekazaritzagunean
igarotzen ditu
oporrak




Mazunte Mexikoko
landa erreserba
ekologiko bat da, eta
leku horretan turistek
aukera dute dortokek
arrautzak nola jartzen
dituzten eta kumeak nola
jaiotzen diren ikusteko.


www.laneta.apc.org/mazunte/mazu1.htm




**APROBETXA
DITZAGUN TRENBIDEAK!**
Gipuzkoan, 310 km trenbide
baino gehiago dugu tren
zerbitzurik gabe.



- Ekoturismoa batere edo oso gutxi aldaturiko lekuetara bidaiatzea da.
- Horietara joanez, aberastasun handiko lekuak ezagutu eta bertako inguru eta bizilagunei laguntzen diegu.










- Nekazaritza turismoa baserri eta etxaldeetan ostatu hartuz egiten da, eta oso da baliagarria ingurua eta bertakoen bizimodua ezagutzeko.



- Bide berdeak: Trenik ez dabilen trenbideak dira, oso egokiak bizikletan, oinez... ibiltzeko. Badira batzuk oso hurbil:
 - Leitzarangoa.
 - Oiartzungoa.

ZAIN EZAZU INGURUMENA OPORRETAN



¿NOLA?

1- Jaso itzazu oporlekuari buruzko xehetasunak: historia, ohiturak...

2- Ibili, beti, markaturiko bideetatik.

3- Zaindu landare eta animaliak.

4- Gogoan izan motorrek enbarazua eta kaltea eragiten dutela mendi eta itsasoan.

5- Eros ditzagun bertako gaiak, horrela bertako bizilagunei laguntzen baitiegu.

6- Neurtu gastatzen duzun ura:

- Ez eduki txorrotak irekita beharrik gabe.

- Dutxa zaitetz, bainatu ordez.

- Tentuz erabili komuneko katea: tiratzen duzun bakoitzean, 20 litro ur gastatzen dira.

7- Zaindu energia kontsumoa: Itzali argiak, ordenagailua, telebista..., behar ez badituzu.

8- Gutxitu bildukien erabilera: ez erosi behar ez duzuna, eta ez bildu erositakoa premiazkoa ez bada.

9- Berrerabili ahal duzun guztia: plastikozko edalontziak, etab. Gauza asko erabil daitezke hainbat aldiz.

10- Birzikla ezazu zeure esku dagoena, eta erabili, era egokian, edukiontzia

11- Zergatik autoaren morroi? Oinez, bizikletaz, garraio publikoan... molda zaitzke.

Informazio guztia:

www.beginira.com-en



Egilea: **Naturgaia**. www.naturgaia.net

Irudiak: **Dogma**. www.studiogdogma.com